

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2021eko MARTXOAREN 29ko

Herri Biltzarra

Bi mila eta hogeita bateko martxoaren hogeita bederatzigarren egunean biltzera deiturik, herriko biltzarra Christian DEVÈZE, jaun auzapezaren lehendakaritzapean bildu da. Biltzarra arratseko 7etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Jean-Noël Magis, ordeak, Corinne Othatcegy, Carmen Gonzalez, herri kontseilariak

Ahalordeak: Jean-Noël Magis-ek Christian Devèze-ri; Corinne Othatcegy-k Yolande Huguenard-i, Carmen Gonzalez-ek Christiane Hargain-Despéries-i.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

22 – Bideozaintza (Amestoy andereak aurkeztua).

Azken urteetan eraikin publikoetan eta eremu publikoan egin diren ekintza kaltegarriak saihesteko xedearekin, Kanbo herriak gogoeta bat eraman du frantses estatuko ordezkariekin (Prefektura eta suprefektura) et Jendarmeriarekin, segurtasun publikoaren diagnostikoa eginez. Gogoeta horrek ondorioztatzen du segurtasun diagnostikoaren bidez identifikatuko diren gunek sentikor eta estrategikoetan kamerak ezartzeko azterketa baten egin behar dela, irudiak grabatu eta biltegitratzeko, justizia zerbitzuek eskatuz gero eman ahal izateko.

Behin-behineko aurrekontu orokorra 180 000 €-koa da, ZGB.

Herri Biltzarrari proposatzen dio:

- Herriko eremu publikoaren segurtasuna eta lasaitasun publikoa bermatzeko bideozaintza sistema baten ezartzearen printzipioa onartzea,
- Aholkularitza tekniko eskatzea, kameraren kokapena eta bideoen ikusteko sistema adosteko; herriko bideozaintzaren Gutun etiko baten idazteko, eta kameraren ezartzeko deialdi publiko baten plazaratzeko.
- Auzapezari baimena ematea frantses estatuari eta beste partaide orori dirulaguntzak eskatzeko.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

23 – 2021eko aurrekontu norabideak (Aizpuru andereak aurkeztua).

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2312-1 artikulua araber, Herri Biltzarrari 2021eko aurrekontu norabideen txostena aurkeztu zaio.

Herri biltzarrari eskatu dio norabideei buruzko eztabaida izan dela egiaztatzea eta txostenaren edukiaz deliberatzea.

Aho batez.

24 – Lur sail baten okupatzeko hitzarmena (Lacosta jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio 264 m²ko lur sail bat (katastroko A 0173), « Erdalasco Larria » deitua, eta Gaineko Bidean kokatua, Jean-Pierre Etcheverry jaunari alokatzea onartzea, bost urteko garai batentzat 2021eko urtarrilaren 1etik hasita. Kontuan izanik lur saila artaldea itzalean atxikitzeko baliatuko duela, kontzesioa urteko 20 €tan egingen zaio eta prezioa urtero berrikusiko da.

Aho batez onartua.

25 – Vacanciel: 2020ko alokairu-sarien berrikustea Covid-19ari loturik. (Aizpuru andereak aurkeztua)..

2003ko azaroaren 24ko erabakiz, Herri Biltzarrak « Les Hameaux d'Arnaga » deitu opor zentroa Vacanciel sozietateari kudeantzan eman zion, Zerbitzu Publikoko Delegazio baten bidez, eta 25 urteko iraupen batekin.

Covid-19aren osasun eta ekonomia larrialdiak direla eta, Herri Biltzarrari eskatu dio 2020ko urteko saria 12 500 €z apaltzea, 2020ko martxo eta ekaina artean izan dituzten gau-erreserba galeren arabera. Ondorioz, 2020ko urteko saria 38 255,32 €koa litzateke.

Aho batez onartua.

26 – Lurralde Hitzarmen Orokorra FaLK (Aristizabal andereak aurkeztua).

Kanbo herriak urteak daramatza FaLKekin lankidetzan, familientzako lehen haurtzaro, haurtzaro eta gazteria zerbitzuen garapena sustatzeko kontratupeko urraspide baten plantan ezartzeko, Haurtzaro Gazteria Kontratuaren (CEJ) bidez. Kontratua bere mugara iritsi zen 2019ko abenduaren 31an eta ezin izan da ordura arte bezala eraberritu, FaLK-ak tokiko kolektibitateen laguntzeko politika berritzeko xedea baitu. FaLK eta bestelako partaideen engaiamendua dokumentu bakarrean biltzen dira orain: Lurralde Hitzarmen Orokorra.

Herri Biltzarrari proposatzen dio Auzapezari FaLK eta beste partaideekin hitzarmena izenpetzeko baimena ematea, baita eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko aisialdi guneen zerbitzuentzako biko hitzarmenak ere.

Aho batez onartua.

27 – Langileria: denboraldiko enpleguak (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio 2021erako denboraldi eta behin-behineko jarduera emendatzearengatiko enpleguak sortzeari, eta denbora batez lanean ez den langile baten ordezkatzeko langile ez titularrak kontratatzeari buruzko iritzi ematea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

28 - Ur edangarriaren eta saneamendu zerbitzuaren 2019 kalitate eta prezioen txostena (Goytino jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrak ur edangarriaren eta saneamendu zerbitzuaren (kolektiboa eta ez kolektiboa) kalitate eta prezioei buruzko 2019ko txostena kide guztiei igorri zitzaizela baieztatzen du.

Aho batez.

Auzapezaren erabakien komunikazioa (Auzapezak aurkeztua).

Auzapezak Herri Biltzarkideei azaltzen dizkie, Azalpen ohar sintetikoan agertzen diren, bere eskuordetzaren esparruan hartu dituen erabakien berri.

Solasgai guztiak landurik, saioa 23:20ean bukatu da.